

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2022ko martxoaren 31, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudiaren aldaketa.
- 2.- Erabakitzea, egoki bada, Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeko obren kontratazioa prozedura ireki sinplifikatu bidez.

- 3.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Orioko aparkalekuak erregulatzeke udal-ordenantzari.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko euskara-plana 2022-2032 aldirako.
- 5.- Otsailaren 25eko 83/2022 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak erabakiak hartzen ditu udal-funtzionario baten diziiplina-espedienteari buruz.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALDI BATERAKO LAN-POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Pertsonala-batzordeak 2022ko martxoaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko araudiaren aldaketari.

2.- Espedientea **JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharra eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ERABAKITZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL-KANPINEAN AISIALDIKO IGERILEKUA ETA UR-PARKEA ERAIKITZEKO OBREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Obrak kontratatzeke Udalak egindako tramitazioaren barruan, proposamenak aurkezteko epean, ez da inolako proposamenik aurkeztu. Ondorioz, lizitatzailerik ez dagoenez, kontratazio publiko hori hutsik utzi behar da.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hirigintza-batzordeak 2022ko martxoaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**

ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

HUTSIK UZTEA Orioko udal-kanpinean aisialdiko igerilekua eta ur-parkea eraikitzeke obrak kontratatzeke lizitazio publikoa.

3.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO APARKALEKUAK ERREGULATZEKO UDAL-ORDENANTZARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak erabaki hauek hartu zituen, besteak beste, 2021eko abenduaren 30eko ohiko bilkuran:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko aparkalekuak erregulatzeko udal-ordenantzari.

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharra eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Erabakia jendaurrean jartzearen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 25ean (15. zenbakian) eta, beraz, jendaurreko epea 2022ko urtarrilaren 26an hasi zen eta 2022ko martxoaren 8an bukatu.

Gipuzkoako Ezgaitasun Fisikoa dutenen Federazio Koordinatzaileak (ELKARTU) alegazio hauek aurkeztu zituen, 2022ko otsailaren 16ko idatziaren bidez (402 sarreraz-zenbakia):

Artículo 4.2.- Zonas de alta rotación.

El tiempo máximo de estacionamiento que se establece en las zonas de alta rotación resulta reducido para las personas con movilidad reducida dado que, debido a las limitaciones funcionales que presentan, requieren de más tiempo para cualquier tipo de desplazamiento o actividad. Por tanto, consideramos que en el art. 4.2 debería recogerse que, en el caso de las personas titulares de una tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad regulada en el Decreto 50/2016, de 22 de marzo, el tiempo máximo de estacionamiento sea considerablemente superior. Así, se establecerían medidas de acción positiva en favor de las personas con movilidad reducida, definidas como “aquellas de carácter específico consistentes en evitar o compensar las desventajas derivadas de la discapacidad y

destinadas a acelerar o lograr la igualdad de hecho de las personas con discapacidad y su participación plena en los ámbitos de la vida política, económica, social, educativa, laboral y cultural, atendiendo a los diferentes tipos y grados de discapacidad”, de acuerdo con el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión.

Artículo 5.h).- Excepciones.

Se considera que la redacción de dicho apartado resulta confusa, pudiendo dar lugar a confusiones, por lo que proponemos la siguiente redacción alternativa: “Los vehículos de personas con movilidad reducida titulares de la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con Discapacidad regulada en el Decreto 50/2016, de 22 de marzo”.

Artículo 6.2.- Zonas de alta rotación.

El tiempo máximo de estacionamiento que se establece en las zonas de alta rotación resulta reducido para las personas con movilidad reducida dado que, debido a las limitaciones funcionales que presentan, requieren de más tiempo para cualquier tipo de desplazamiento o actividad. Por tanto, consideramos que en el art. 6.2 debería recogerse que, en el caso de las personas titulares de una tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad regulada en el Decreto 50/2016, de 22 de marzo, el tiempo máximo de estacionamiento sea considerablemente superior. Así, se establecerían medidas de acción positiva en favor de las personas con movilidad reducida, definidas como “aquellas de carácter específico consistentes en evitar o compensar las desventajas derivadas de la discapacidad y destinadas a acelerar o lograr la igualdad de hecho de las personas con discapacidad y su participación plena en los ámbitos de la vida política, económica, social, educativa, laboral y cultural, atendiendo a los diferentes tipos y grados de discapacidad”, de acuerdo con el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión.

Artículo 6.3.- Zonas de corta estancia.

El tiempo máximo de estacionamiento que se establece en las zonas de corta estancia resulta reducido para las personas con movilidad reducida dado que, debido a las limitaciones funcionales que presentan, requieren de más tiempo para cualquier tipo de desplazamiento o actividad. Por tanto, consideramos que en el art. 6.3 debería recogerse que, en el caso de las personas titulares de una tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad regulada en el Decreto 50/2016, de 22 de marzo, el tiempo máximo de estacionamiento sea considerablemente superior. Así, se establecerían medidas de acción positiva en favor de las personas con movilidad reducida, definidas como “aquellas de carácter específico consistentes en evitar o compensar las desventajas derivadas de la discapacidad y destinadas a acelerar o lograr la igualdad de hecho de las personas con

discapacidad y su participación plena en los ámbitos de la vida política, económica, social, educativa, laboral y cultural, atendiendo a los diferentes tipos y grados de discapacidad”, de acuerdo con el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión.

Artículo 6.5.- Aparcamientos para personas con movilidad reducida

Se considera que se debe mencionar y cumplir con las condiciones básicas, así como con las dimensiones concretas de aplicación de las plazas de aparcamiento reservadas para personas con movilidad reducida de acuerdo con el anexo II artículo 3.11 del Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

Artículo 10.- Obligaciones.

El término “discapacitados físicos” para referirse a las personas con discapacidad. Sin embargo, éste resulta inapropiado y contrario a la legislación vigente. Así, la Disposición Adicional Octava de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia señala que “a partir de la entrada en vigor de la presente Ley, las disposiciones normativas elaboradas por las Administraciones Públicas utilizarán los términos «persona con discapacidad» o «personas con discapacidad» para denominarlas”.

Asimismo, el término jurídico que utiliza la Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos de las personas con discapacidad es también el de “personas con discapacidad”. Además de definir este término en el art. 1.2. “Las personas con discapacidad incluyen a aquellas que tengan deficiencias físicas, mentales, intelectuales o sensoriales a largo plazo que, al interactuar con diversas barreras, puedan impedir su participación plena y efectiva en la sociedad, en igualdad de condiciones con las demás”, es el término que utiliza a lo largo de todo su articulado.

En este mismo sentido, el art. 4 del Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social establece que “son personas con discapacidad aquellas que presentan deficiencias físicas, mentales, intelectuales o sensoriales, previsiblemente permanentes que, al interactuar con diversas barreras, puedan impedir su participación plena y efectiva en la sociedad, en igualdad de condiciones con los demás”.

En definitiva, el término jurídico preciso no es otro que “persona con discapacidad”, y éste debería ser el que se adoptara en el texto de la Ordenanza Municipal reguladora de los aparcamientos del municipio.

Artículo 11.- Régimen sancionador

Se considera necesario incluir en el apartado de infracciones graves el supuesto de estacionar en las plazas de aparcamientos reservados para personas con movilidad reducida sin tener la tarjeta europea de estacionamiento para personas con discapacidad.

Gipuzkoako Ezgaitasun Fisikoa dutenen Federazio Koordinatzaileak (ELKARTU) aurkeztutako alegazioak nahitaez onartu behar dira, betetzen dutelako gaiaren arabera indarrean dagoen araudia.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza-batzordeak 2022ko martxoaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- ONTZAT EMATEA OSOTASUNEAN Gipuzkoako Ezgaitasun Fisikoa dutenen Federazio Koordinatzaileak (ELKARTU) 2022ko otsailaren 16ko idatziaren bidez (402 sarrera-zenbakia) aurkeztutako alegazioak, goian azaldutako terminoetan.

2.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA Orioko aparkalekuak erregulatzeko udal-ordenantzari, Gipuzkoako Ezgaitasun Fisikoa dutenen Federazio Koordinatzaileak (ELKARTU) aurkeztutako eta udalbatzarraren bilkura honetan osotasunean ontzat emandako alegazioak inkorporatuta.

3.- ARGITARATZEA udal-ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Ordenantza osorik argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean jarriko da indarrean.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EUSKARA-PLANA 2022-2032 ALDIRAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Euskara- eta hezkuntza-batzordeak 2022ko martxoaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko euskara-plana 2022-2032 aldirako.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, Euskara- eta hezkuntza-batzordearen presidentea den aldetik, eta adierazten du Euskara Plana osatzeko lana luzea izan dela, baina oso esker onekoa: hamahiru bilera informatibo egin dira eta, guztira, 53 lagunek parte hartu dute bilera horietan. Euskara Plana, beraz, herritarren laguntzarekin egin da eta dokumentu garrantzizko bat da, Udalari eta herriari erronka handiak planteatzen dizkiona.

Bukatzeko, Ainara Munduatek adierazten du gaur hasiko dela, Amurrión, KORRIKAREN 22. edizioa, eta, beraz, bertan parte hartzeko gonbita egin diela Orioko herritar guztiei eta, bereziki, udalbatzarkideei.

5.- OTSAILAREN 25EKO 83/2022 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK ERABAKIAK HARTZEN DITU UDAL-FUNTZIONARIO BATEN DIZIPLINA-ESPEDIENTEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Dekretuak honela dio, hitzez hitz, erabakiaren zatian:

LEHENENGOA: Jarraian zehazten diren egitateak frogatutzat ematea:

1.- Mikel Izquierdo Gabarrenek bere udal-funtzionario lanpostuarekin bateraezina den jarduera pribatu bat egiten du, duela gutxienez 7 urte. Jarduera pribatu horren ondorioz, Mikel Izquierdo Gabarrenek, ustez, diru-sarrerak dauzka. Orioko Udalari ez dio jarduera pribatu edo negozio horren berri eman.

Orioko Udalak aurtengo maiatzaren 27an, espedienteen eguneratzearen barruan, udal-funtzionario eta langile guztiei eskatu zien bateragarritasunari buruzko datuak ematea. Udalaren eskari horri erantzunez, hauxe zioen Mikel Izquierdok 2021eko ekainaren 3ko data duen idatzian: «Bateragarritasunari dagokionez, jakinarazten dut 2015eko ekainaren 18an, udal-erregistroan bateragarritasun eskaera egin nuela eta ontzat interpretatzen dudala administrazio-isiltasun positiboa dela eta».

Mikel Izquierdok aipatzen duen 2015eko ekainaren 18ko idatzia, orduko Orioko alkateak 2015eko apirilaren 23ko dekretuaren bitartez Mikel Izquierdo Gabarrenen aurka zabaldutako diziiplina-espedientearen barruan aurkeztu zuen. Diziiplina-espediente hartako instruktore zenak, Gipuzkoako Foru Aldundiko goi-teknikari batek, 2015eko urriaren 15ean emandako ebazpenaren bitartez, apirilaren 12ko 7/2007 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen 96.1-c) eta uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 87.1-c) artikuluetan oinarritutako ebazpen-proposamena eman zuen Mikel Izquierdo Gabarrenen aurka.

Ebazpen-proposamen hartan, besteak beste, instruktoreak adierazten zuen Mikel Izquierdo Gabarren funtzionarioa ordainsari-bateraezintasun egoeran zegoela, kasu hartan «ordaindu gabeko bigarren jarduera» izanda ere (orduko ikerketaren arabera), Mikel Izquierdok oinarrizko soldataren %30 baino handiagoko berariazko osagarria jasotzen zuelako. Azken urteotan, Mikel Izquierdo Gabarren funtzionarioaren soldatari dagokionez, egoera hori ez da aldatu.

Ebazpen-proposamen hura, ordea, ez zen sekula erabaki bihurtu, instruktoreak ebatzitakoa gorabehera, proposamenak ez zuelako aurrerabiderik izan Orioko Udalean. Ondoren, orduko Orioko alkateak, 2019ko martxoaren 21eko 139/2019 zenbakidun dekretuaren bitartez, Mikel Izquierdo Gabarrenen aurka hasitako diziiplina-espedientea iraungitzea eta artxibatzea erabaki zuen, «diziiplina-espedientea zabaldu zen datatik —hau da, 2015eko apirilaren 23tik— 2019ko martxoaren 21eko udal ebazpen hori hartu bitartean, esandako diziiplina-espedientearen inolako udal ebazpenik eman ez zelako».

2.- Mikel Izquierdo Gabarrenek, beste bazkide batekin gutxienez, zabalik dauka Orioko lanpostuarekin bateraezina litzatekeen negozio-jarduera pribatu bat Donostiako Zurriola hiribideko 46. zenbakian dagoen higiezin baten beheko areto handi batean (areto hori «Box» gisa da ezaguna crossfitaren jardueran). Publikora zabalik dagoen gimnasioa da eta ordaindutako jarduerak eskaintzen dituzte bertan, crossfit kirola ardatz hartuta. Negozio-jarduera hori 2014ko azarotik dute zabalik, modu jarraian, eta gaur egun ere zabalik segitzen du.

Mikel Izquierdo Gabarrenek, negozioaren jabeetako eta arduradunetako bat izateaz gain, entrenamenduak eta klaseak ematen ditu bertan, hasieratik gaur egun arte. Negozio-jarduera horretan kirol-eskaintza ugari egiten da hainbat alorretan (crossfita, elikadura, nutrizioa...) eta bezeroek tarifak ordaintzen dituzte hor egindako kirol-saio edo bestelakoen truke. Mikel Izquierdo Gabarrenek eskaintzen dituen zerbitzuengatik dirua kobratzen du, ustez. Hau da: irabaziak dauzka, ustez, negozio-jarduera horren ondorioz, horretarako sortutako sozietatearen bitartez.

Aipatutako negozio-jarduera hori ezagutzera emateko —hau da, publizitatea egin eta bezeroak lortzeko—, bide hauek erabiltzen ditu Mikel Izquierdok, Orioko Udalak jakin duenez:

- **CrossFit Zurriola** (Donostiako Zurriola hiribidea, 46, beheko oina). Webgunea: <http://crossfitzurriola.com>. E-posta: crossfitzurriola@gmail.com. Sare sozialak: Facebook, Instagram eta Twitter.
- **Training Culture** (Donostiako Zurriola hiribidea, 46, beheko oina). Alex Anasagasti bazkidearekin. Webgunea: <http://trainingculture.es>. Sare sozialak: Instagram, Facebook, eta abar.

Mikel Izquierdo Gabarren «Coach Mike» edo «Coach Mikel Izquierdo» goitizenekin da ezaguna crossfitaren munduan, eta erreferentzialtasun edo sona handiko prestatzaile eta entrenatzailea da, dirudienez, estatu mailan. Entrenatzaile pertsonal lanak egiteaz gain, taldeen entrenatzaile, irakasle edo monitore ere bada eta, horrekin batera, beste hainbat konturen artean, «Crossfit Open» izeneko prestaketa-lanak ere egiten ditu eta «Training Culture Café» izeneko podcast-ean parte hartzen du, crossfiteko kirolari, prestatzaile, erabiltzaile, entrenatzaile eta bestelakoekin batera, eta sarritan bera da elkarriketatzailea.

Bestalde, Donostian egoitza duen Basquelandsway bidaia-enpresak bere webgunean argitaratutako eskaintzen artean agertzen dira Mikel Izquierdoren izena eta irudia (Alex Anasagasti bere bazkidearenekin batera), programa hauen barruan: «Wod in & out» eta «Crossfit, Natura eta Gastronomía Donostian». Horren barruan, Crossfit Zurriolako areto edo «Box»-ean, entrenamendu-saioak eskaintzen ditu. 2021ean lau egunetako programak eskaini ditu Basquelandsway enpresak, zenbait aldiz (azkena, 2021eko azaroaren 6tik 10era bitartean) eta, adibidez, 2021eko azaroaren 10ean, Mikel Izquierdo Gabarren Zurriola 46 hiribideko Crossfit Zurriola aretoan klaseak ematen ari zen, 17:30ean.

3.- Donostiako Zurriola 46ko aretoan negozioa izateaz gain, Orioko Udalak zantzu indartsuak ditu, baita ere, ondorioztatzeko Mikel Izquierdo Gabarrenek eratu zuela,

bere izena ageri ez bada ere, Kirol Gestioa XXI, SL izeneko sozietate bat, bazkide baten bitartez, 2016ko martxoaren 29an, beste crossfit-areto batzuk zabaltzeko beste hiri batzuetan: Bilbon eta Gasteizen, esaterako. SL horren eratze-eskrituran Asier Calvo Zuluaga agertzen da administrari bakar.

CrossFit Zurriolako webgunean «nuestro equipo» atalean klikatuta, Alex Anasagasti eta Asier Calvo Zuluaga azaltzen dira, beste batzuen artean. Azken horri buruz hau esaten du webguneak: «Lic. en Ciencias de la AF y el deporte. Tiene más de 15 años de experiencia como entrenador y gestor de instalaciones deportivas (...)».

Kirol Gestioa XXI, SLren negozio-jardueraren helburu berarekin, 2018ko ekainaren 19an, Gorbeia Kirol Gestioa XXI SL izeneko sozietatea eratu zen, 2021eko maiatzean iraungi edo desagertu dena. Gorbeia Kirol Gestioa XXI, SL izeneko sozietate hori eratzeke, Kirol Gestioa XXI, SL entitate merkantilak %75eko ekarpena egin zuen, eta beste %25a Grupo Murias enpresak egin zuen.

2021eko otsailaren 1ean Mikel Izquierdo Gabarrenek, Orioko Udaleko bulegoetako fotokopiagailuan hainbat fotokopia egin ondoren, dokumentazio-sorta bat utzi zuen ahaztuta fotokopiagailuan bertan. Dokumentuen hasierako orrian hau irakur zitekeen: «RESUMEN SITUACIÓN GORBEIA KIROL GESTIOA XXI 'CROSSFIT GORBEIA'». Crossfit-instalazioak zabaltzeko sozietate berri baten gaineko hausnarketa bat zen, Murias taldeari planteatu zitzaiona. Horren segidan, beste zenbait agiri zeuden; besteak beste, 2018ko ekainaren 18ko data duen «ACUERDO DE COLABORACIÓN PARA CONSTITUIR UNA EMPRESA DE GESTIÓN DE CROSSFIT» izenburua daramana eta bi sinadura dituena: alde batetik, Asier Calvo Zuluagarena, KIROL GESTIOA XXI, SL enpresaren izenean eta haren ordezkaritza; eta, bestetik, PÁDEL&GYM LAS CAÑAS, SL enpresako ordezkariarena (Grupo Muriaseko enpresa bat da).

Hori guztia dela-eta, zantzu indartsuak daude ondorioztatzeko Mikel Izquierdo Gabarren bera (ere) aipatutako sozietateen atzean dagoela, interes zuzenarekin, eta bera izan dela Grupo Muriasekin interlokutore-lanak egin dituena, aipatutako instalazio berriak zabaltzeko, interesatu zuzen gisa.

BIGARRENA: *Hauek dira lege eta arau aplikagarriak:*

- *Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.*
- *Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena, 1997ko azaroaren 7an egindako aldaketarekin (16/1997 Legea).*
- *Urtarrilaren 10eko 33/1986 Errege Dekretua, Estatuko Funtzionarioen Diziiplina Erregimenaren Erregelamendua onartzen duena.*
- *Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.*

HIRUGARRENA: Lehen atalean aipatutako frogatutako egitateak honela kalifikatu zituen diziplina-espedientearen instruktoreak:

Orain arte adierazitakoaren ondorioz, diziplina-espediente honen instruktoreak hau proposatzen du:

ZIGORTZEA Mikel Izquierdo Gabarren udal-funtzionarioa **ARAU-HAUSTE OSO LARRI** honen egile/erantzule gisa: «Bateraezintasun-arauak ez betetzea, horren ondorioz bateraezintasun-egoera bat sortzen bada», lege-arau hauetan xedatutakoa kontuan hartuz: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 95. 2 n) artikulua eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 83 h) artikulua.

Arau-hausteagatik proposatzen den zigorra hau da: **funtzionarioaren behin betiko separazioa zerbitzutik.**

LAUGARRENA: Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 96. 1 a) artikulua eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 87. 1 a) artikulua jasotzen dituzte arau-hauste oso larriengatik aplikatu daitezkeen zigorrak eta, kasu zehatz honetan, instruktoreak proposatzen du **funtzionarioa zerbitzutik behin betiko separatzea.**

BOSGARRENA: Gorago adierazitako guztia ikusita, eta espedientea osatzen duten agiriak aztertuta (bereziki, espedientatuak Udaleko erregistro elektronikoan aurkeztutako bi «onarpen-idatziak»: bata 2022ko otsailaren 7koa, otsailaren 8an aurkeztua, eta bestea 2022ko otsailaren 23koa), instruktorearen ebazpen-proposamena baloratu dut eta osotasunean egiten dut bat harekin.

Horrenbestez, **MIKEL IZQUIERDO GABARREN** udal-funtzionarioa **ARAU-HAUSTE OSO LARRI** honen egile/erantzulezat jotzen dut: «Bateraezintasun-arauak ez betetzea, horren ondorioz bateraezintasun-egoera bat sortzen bada», lege-arau hauetan xedatutakoa kontuan hartuz: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 95. 2 n) artikulua eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 83 h) artikulua.

Arau-hauste oso larri horrengatik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 96. 1 a) artikulua eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 87. 1 a) artikulua jasotzen duten **ZIGOR HAU EZARTZEA MIKEL IZQUIERDO GABARREN** udal-funtzionarioari: **zerbitzutik behin betiko separatzea.**

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ezarritako zigorrak.

ZAZPIGARRENA: *Ebazpen hau jakinaraztea interesatuari, aurkeztu ditzakeen errekurtsuak adieraziz; Orioko Udaleko Kontu-hartzailetza departamentuari, dagozkion ondorioetarako; eta Orioko udal-langileen ordezkari, jakinaren gainean egoteko.*

ZORTZIGARRENA: *Ebazpen hau jasota uztea zigortutako enplegatu publikoaren espediente pertsonalean.*

BEDERATZIGARRENA: *Ebazpen honen berri ematea udalbatzarrari, egiten duen hurrengo bilkuran, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21.1 h) artikuluan ezarritakoaren arabera.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du gaurko egunez bukatutzat ematen direla kirol-teknikariak Orioko Udalari ematen dizkion zerbitzuak, eta azalpen batzuk eman nahi dituela haren ibilbide profesionalari buruz:

- 2011-2015 udal-agintaldian, Beñat Solaberrieta (EH Bildu) alkate zela, lehen diziplina-espedientea ireki zitzaion Udaleko kirol-teknikariari, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bi funtzionario izendatu ziren instruktore eta idazkari. Espedientearen instruktoreak, 2015eko ekainaren 14an, Jose Angel Zaldua (EAJ) alkate zela, kirol-teknikaria zigortzea proposatu zuen, 15 egunez lanik eta soldatarik gabe utzita.

Hala ere, 2019ko martxoaren 20an, Jose Angel Zaldua alkateak (EAJ) iraungitzat jo zuen Udaleko kirol-teknikariari irekitako lehen diziplina-espedientea eta, besterik gabe, artxibatu egin zen espediente hura.

- 2019ko ekainean, EH Bildu talde politikoak Orioko Alkatetza berreskuratu zuen, eta, Anuska Esnal bera alkate zela, 2021eko ekainaren 21ean, beste diziplina-espediente bat ireki zitzaion Udaleko kirol-teknikariari, eta Udaleko idazkaria eta euskara-teknikaria izendatu ziren espedientearen instruktore eta idazkari, hurrenez hurren.

Aipatutako diziplina-espedienteari bukaera eman zaio alkateak 2022ko otsailaren 25eko 83. dekretuaren bidez hartutako eta erabaki honen azalpen-zatian jasotako ebazpenekin.

Amaitzeko, alkateak esaten du jende askoren zorion-mezuak jaso dituela Udaleko kirol-teknikariari diziplina-espediente hori ireki eta bideratzeagatik; eta Udalak gardentasun osoz jardun duela eta, horregatik, egoerak eskatzen zuela azalpenak ematea teknikari horren azken 10 urteetako ibilbide profesionalari buruz.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hitza hartzen du, eta eskerrak ematen dizkio alkateari Udaleko kirol-teknikariari irekitako diziplina-espedientearen tramitazioa diskrezioz eramateagatik. Horregatik, esaten du bere talde politikoak zoriondu eta bere atxikimendua eskaini besterik ezin duela egin, egindako lan egokiagatik.

Esaten du, baita ere, bera ez dela gai sentitzen Jose Angel Zaldua alkate ohiak egindako kudeaketei buruzko azalpenak emateko.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza berriro eta adierazten du Orioko herriari azalpen zehatza zor zaiola Udaleko kirol-teknikariari irekitako diziplina-espedientearen tramitazioan gertatutako guztiari buruz. Adierazten du, baita ere, gai honetan ez dela inoiz «jazarpen politikorik» izan, eta kontu hau ez dela sigla politikoei buruzkoa, baizik-eta udal-langile publiko batek egindako arau-hausteei buruzkoa.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza ostera eta adierazten du ez duela, inolaz ere, zalantzan jarri Udaleko kirol-teknikariari diziplina-espedientea ireki eta bideratzeko jarraitutako prozedura.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,